

2005EKO MARTXOAREN 16KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko martxoaren hamaseian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko otsailaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren, 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun fakturen zerrenda, EHUN ETA HAMASEI MILA ZORTZIREHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMO (116.865,25 €)koa, bere espedientean jasotzen dena, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 75 zbk.dun esped.: 2005eko urtarrilaren 25ean zaharren egoitzan sartu izanaren zioz zerbitzutik baja ematea.

- 316 zbk.dun esped.: astean egun batez 2 ordutako zerbitzua ematea. Onuradunak zerbitzu kostuaren %3ko ekarpena egingo du.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 115 zbk.dun esped.: beste udalerri batera bizitzera joatearen zioz etxebizitza mantentzen laguntzatik baja ematea.

Telealarma.-

- 266 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzuaren instalaziorako 52,10 €ko dirulaguntza eta telealarma zerbitzuaren mantenimendurako urtean 55,50 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona telealarma zerbitzu kostuaren %75a da.

Entitateei dirulaguntzak. -

Gizarte zerbitzuetako jarduerak egiten dituzten entitateei, 2005 ekitaldian, honako dirulaguntza hauek ematea:

<u>Entitatea</u>	<u>Zenbatekoa</u>
ASPACE	439 €
ATZEGI	406 €
ODOL EMAILEAK	970 €
GURUTZE GORRIA	649 €
DYA	328 €
HIES-KONTRAKO ELKARTEA	439 €
GIZAKIA HELBURU	1.018 €

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK. -

Antzar Korrikalariak, otsailaren 20an Lazkaon burututako Gipuzkoako Eskolarteko Kross Txapelketarako, egindako dirulaguntza eskaera ikusirik eta Kirol Batzordeko Presidentearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako guztien aldeko botuz, zortziehun (800,-) eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du, zenbateko hau 2005eko aurrekontuko 452 48101 partidara aplikatuz.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK. -

Alkateak adierazten du EUDELe egin duen gomendioa jarraituz, langileen ordainsariei %2,5eko igoera aplikatuko zaiela 2005eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

VI.- BILERAREN AMAIERA. -

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zazpiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.